



Mikroteka zerbitzua Haur Liburutegian

Mikroteka zerbitzuak hauxe eskaintzen dizu:

- Internet (NET), 30 minutu.
- Liburutegiko CD-ROMak erabiltzeko aukera (ROM), 30 minutu.
- Informazioa ordenagailuz bilatu ahal izatea (KON).
- Lanak ordenagailuz egitea (LAN), ordu eta erdi.

Zerbitzu BERRI hau erabiltzeko eman behar diren pausoak:

- 7-16 urte bitartekoa bazara, inprimaki hau bete eta entregatu. Ez ahaztu **gurasoen sinadura!**
- Liburutegiko bazkide txartela ekarri, eta txanda erreserbatu (soilik NET, ROM eta LAN ordenagailuak erabiltzeko).

Interneten seguru nabigatzeko gomendioak:

- Gurasoei Interneten nabigatzeko baimena eskatu. Gonbidatu itzazu zurekin nabigatzera.
- Kontuz zure datu pertsonalekin, ez eman beste inori.

GURASOENTZAT!!!! Inprimakia bete baino lehen, irakurri hurrengo hau:

Mikrotekak eskaintzen duen zerbitzuetako bat *Internet* da. Zerbitzu honetan egon daitezkeen arriskuei aurrea hartzeko asmoarekin, Haur Liburutegiak hauxe jakinarazi nahi dizue:

- Haurrek zein helduek eskubidea dute liburutegiek eskaintzen dituzten informazio eta zerbitzuak, baita *Internet* ere, berdin-berdin eskuratzeko.
- Haurrak Interneten nabigatzen ari direnean, etorkizunean baliatu beharko dituzten trebetasunak hartzen ari dira. *Ziberespazioko* esploratzaile bihurtzen dira. Espazio horretan ideiak partekatzen dituzte eta informazio zein aisialdi modu berriak aurkitzen dituzte. Baina arriskuak ere badituzte:
 - Talderen batean sartu, haurrentzat arriskutsuak izan daitezkeen produktu arriskutsuak erosi.
 - *Ziberrabusatzaileen* (askotan beste haur batzuk) zelata, zapalketa, eraso.
 - Formularioak betetzean eta *Interneteko* lehiaketetan parte hartzean, beren gaineko datu garrantzitsuak eta pribatuak ematea.
 - *Internet* bidez gauzak erosi edo saltzean, iruzurren biktima izatea; eta zure datu finantzarioak beste batzuei ematea (kreditu txartelaren gakoa).
 - *Ziberrarraparie* erakartzea, eurekin aurrez aurre egoteko asmoarekin.
- Liburutegia ez da kontsultatutako materialen erantzule. Zuk bakarrik kontrola dezakezu Interneten erabilera. Liburutegira zure seme edo alabarekin batera etortzen bazara, bilaketak egiten laguntzeaz gainera, Interneten erabilera zaindu dezakezu. Zure semea edo alaba hezten ariko zara, tresna hau behar bezala erabil dezaten.
- Gaika antolatutako guneen menuarekin, orri aurrehautatuen bi programa egin ditu Liburutegiak: bata. helburu ludikoekin; eta bestea, informazioa bilatzeko.
- Liburutegiak ez du irakasten nola erabiltzen den Internet edo nola erabili programa informatikoak. Liburutegiak oinarrizko laguntza besterik ez du ematen.
- Liburutegian ezin da *txateatu*, ezta *messenger* erabili ere.

Informazio gehiago nahi baduzu, kontsultatu Liburutegian gurasoentzat dugun “Internet con los menores riesgos” izeneko gida.

..... jaunak/andreak,
..... N.A.N. zenbakiaren jabeak, bere erantzukizunpean, baimentzen
du bere seme/alaba..... Liburutegi honetan dagoen Mikroteka erabiltzeko,
Liburutegiak zerbitzu hori erabiltzeko jarritako arautegiaren baldintzetan.

Tolosan, 200_ (e)ko.....ren..... (a)n (Sinadura)